

ESKOLAK EUSKALDUNDU BEHAR DU



Idatzi honen bidez hausnarketa bat helarazi nahi diogu euskal jendarte osoari, eta bide batez, dei bat ere luzatu nahi dugu. Euskal Herrian hezkuntza sistema ezberdinak daude. Gure herria administratiboki zatituta dagoen bezala, hezkuntzaren antolaketa ere banatuta dagoela bistakoa da. Baina sistema ezberdin horiek badute zerbait komuna: pertsona guztiak bere herriko hizkuntza jakiteko eta ezagutzeko duen eskubidea ez dute bermatzen.

Jakin badakigu Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako egoerak ez direla berdinak. Baina oro har, eredu edota politika bat edo bestea izan, ondorio argia da euskararen lurralde osoan eskolak ez diela belaunaldi berri guztiei euskara ziurtatzen. Eta hor arazo handia dago.

Sinatzaile garen eragileok kezka biziz ikusten dugu egoera hau, ez baita egoera kasual bat. Egiturazko arazo baten aurrean aurkitzen gara, milaka direlako euskara menperatu ezinik eskolatik irteten diren haur eta gazteak. Honek, euskararen biziraupena bera kolokan jartzen du.

Euskararen ezagutzak azken hogeitun urteetan ez du behar hainbat aurrera egin. Hortaz, ezin dugu pentsatu egoera honek iraute bat ziurtatzen duenik, bustitzen gaituen testuinguruak kontrako ezaugarri eta faktore ugari ezartzen baititu. Besteak beste, globalizazioaren fenomenoaren aurrean gaude eta bi hizkuntza indartsuren ondoan. Egiturazko neurri eraginkorrik hartzen ez badugu, euskararen etorkizuna ziurtatzea gero eta zailagoa izango da.

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena da. Lurralde batzuetan gaztelaniarekin eta beste batzuetan frantsesarekin bizi dena, baina euskara, Euskal Herri osoko berezko hizkuntza bakarra, mendeetan jasan behar izan duen zapalkuntzaren ondorioz egun bizi duen egoera gutxiagotura iritsi da. Euskaraz bizi zen herritik, euskaraz bizi ezin den herrira iragan gara.

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela oinarri hartuta, beronen ezagutza euskal herritar ororen eskubidea dela adierazten dugu, bai bertan jaio direnena eta baita beste herri batzuetatik etorri direnena ere. Zentzu horretan, eskolak paper oso garrantzitsua jokatzeko du eskubide horren gauzapez ari garenean, hizkuntza baten transmisioaren ardatzetako bat baita. Egundak, gaztelania eta frantsesera guztiok derrigorrez ikasi beharrean gara eta nola uler daiteke bertako hizkuntzaren ezagutza eskolak ez bermatzea? Oinarritzko hezkuntza amaitzean, haur eta gazte guztiak euskara menperatu behar dute. Egundak, ikasleak benetan euskalduntzea ziurtatuko duten neurriak ezartzeko unean gaude eta euskaldunduko duen hezkuntza sistema baten alde eginez, eskola euskalduna eraikitze borondatea eskatzen dugu. Hau euskal jendarte osoari adierazi nahi diogu, baina bereziki administrazioetara zuzendu nahi dugu aldarrikapena. Haiei dagokie honen gainean erabakiak eta neurriak hartzea eta hau egiten ez duten artean, gorago aipatu helburuari trabak jartzen ari zaizkie. Gure aldetik, haiek duten erantzukizuna azaldu nahi dugu.

Hemendik, euskal herritar guztiak egoera honen jabe egin daitezen gonbidatzen ditugu. Aurrerapausoak denon ahaleginaz emateko uste osoa dugulako,

LAB, ELA, Ikasle Abertzaleak, Sortzen Ikasbatuz, Euskal Herriak Bere Eskola, Euskal Herriko Euskaraz, Euskal Konfederazioa, Seaska, AEK, IKA

AMETZAGAÑA 19
Behesolairua,
DONOSTIA 20012
TF.- 943 27 55 61
e-posta:
joxemi@joxemi.org
<http://www.joxemi.org>

COORDINATZAILEAK
Juan Ignacio Arrieta
Susana Martinez

HIZKUNTZA
ARDURADUNA:
Amaia Artola

MAKETAZIOA:
Olatz Mitxelena

55.

zenbakia

2003ko martxoa



MARTXOKO DEIALDIAK

***KOSKA IRRATIA** FM 89.8
Uribe Kosta eta inguruan entzungai. 24 orduko programazioa: arratsalde 8etatik 12etara zuzeneko programak eta gauetz 10etan albisteak

zuzenean.

***OLERKI EMANALDI IREKIA**, HILEROKO AZKEN OSTEGUNEAN, Mikelazulon 21.00etan, parte hartu nahi duen orori irekiak.

***EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA:** Hilabeteroko azken ostiralean, elkarretaratzea herri guztietan. Antolatzailea: Etxerat elkarte.

***ERAKUSKETA:** Mariaren Bihotza enparantza 4, San Francisco auzoan (Bilbo) otsailaren 21etik martxoaren 20ra, ESTIBALIZ POMBO "ACUARELAS" lanarekin.

Martxoaren 21etik apirilaren 11ra NOREDDIN BOUHLALA BOUHORMAren lana ikusgaia: "Lo místico en el espacio y el tiempo". Antolatzailea: Txakur Berdea San Francisco Auzoko Elkartasun Sarea.

5ean

LIBURU AURKEZPENA: "LA ABOMINABLE CARA OCULTA DE LOS EJERCITOS HUMANITARIOS". 20.00etan, ZAPATENEO aretoan (Gasteiz). Egilea: GASTEIZKOAK taldea. Argitaratzaile eta banatzailea: ZAPATENEO Kultur Elkarte.

7an

OLERKI EMANALDIA. Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubak eskainiko du Oreretako Mikelazulo Elkartean 21.00etan. Antolatzailea: Mikelazulo Elkarte Gernika Deialdiarekin bat eginez.

8an

"LETREN KILIMAK" IKUSKIZUNA. Mikelazuloko olerkari, pintore eta musikoek burutuko dute Lemoako gaztetxean. Antolatzailea: Gernika Deialdiarekin bat eginez.

14an

ANTZERKIA: La belle Makia Belle antzerki taldeko "Are you ready shoes?" lana ikusgai 21.00etan. Antolatzailea: Txakur berdea San Francisco Auzoko Elkartasun Sarea.

22an

HITZALDIA: "La regulación del pluralismo cultural en las sociedades multiculturales modernas: De las políticas de integración a la construcción del inintegrable islámico y del no nacional". Hizlaria: Ignasi Álvarez. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko areto nagusian, 19.30etan hasita. Antolatzailea: SOS Arrazakeria.

25ean

"Harriola Marriola" helduentzako ipuina, Koldo Amestoy kondalariak emanik. Hazparneko mediatekan, frantsesez, 21.00etan. Antolatzailea: Eihartzea Kultur Etxea.

27an,

GREBA ETA MOBILIZAZIO EGUNA:

"Hizkuntza zapalkuntzaren aurrean Intsumisioa eta borroka" lemapean. Goizean greba eta mobilizazioak irakaskuntzan. Arratsaldean mobilizazioak Bermeo, Gernika, Ondarru eta Lekeition. Antolatzailea: E.H.E.

28an

KONTZERTUA: Willie Blusen emanaldia (blues, pop-rock) 21.00etan. Lekua: Mariaren Bihotza enparantza 4, San Francisco auzoan (Bilbo). Antolatzailea: Txakur berdea San Francisco Auzoko elkartasun sarea.

IPUINA.: "Harriola Marriola" Aiherrako

Gaztetxe gelan, Euskaraz, arratseko bederatzi-etan. Eihartzea Kultur Etxeak antolaturik.

29an,

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGUNA

LEKEITION. Egun osoko jai eta aldarrikapen eguna. Antolatzailea: E.H.E.

MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

IKASTAROAK



GIPUZKOAKO EMAKUME FEMINISTEN KOORDINADORAK ANTOLATUTAKO EKIMENAK

Hiru ekimen ezberdinetan banatzen dira egun honen inguruko aldarrikapenak.

a) Mahai-inguruak.

-Martxoaren 5ean: "Parekotasuna".
Hizlariak: Marixabel Gaztainaga, Maite Barreña

eta Asun Garcia.

-Martxoaren 7an: "Mugimendu feminista eta gazteak".

* Feminismoaren historia . Hizlaria: Arantza Campos

*Lesbianismoa, anorexia eta gazteak. Hizlariak: Maite Segurola eta Itu Iturrioz.

- Martxoaren 12an: "Globalizazioaren inguruan".

Hizlariak: Begoña Zabala, Ainhoa Etxaide, Marijo Molina eta Manoli Etxeberria.

Mahai-inguru guzti hauek, Donostiako Goikoa Jauregian 19:30etan.

b) Ekintzak:

Antzerkia 17:00etan Donostiako Bulebarrean. Medeak taldeak eskainia.

c) Manifestazioak eta kontzentrazioak :

Martxoaren 8an, 19:00etan manifestazioa Donostiako Bulebarrean.

EMAZTEEK DIOTE ELKARTEAK ANTOLATURIKO EKIMENAK

- Martxoak 7 (21.00etan): "laborarisa ala laborari emaztea?" gaiaren inguruko eztabaida. Hazparneko Eihartzea kultur Etxean, laborantza munduko zonbait emazteen lekukotasunarekin.

- Martxoak 8 (eguerdian): emazte talde batek asma-turiko antzerki sorkuntza bat, Hazparneko Xuriatea ostatuan.

- Martxoak 9: Aiherran, bertako Beltzuntze elkartearen laguntzarekin, bertso bazkaria, Maialen Lujanbio, Miren Artetxe eta Eztitxu Arozena bertsolariekin.

GENEROARI BURUZKO IKASTAROA.

DONOSTIAN : Jareño Kultur Etxean, martxoaren 20 eta 21ean eta IRUNEN: Udal Euskaltegian (Urdanibia enparantzan), martxoaren 21 eta 22an.

ANTOLATZAILEA: MUGARIK GABE.

IPES-GITEren IKASTAROA.

1. HEZKUNTZA SEXUALARI BURUZKO IKASTAROA. Martxoak 24, 25, 26 eta 27. 18.00etatik aurrera 3 orduz egunero. Bezain sexologia zentroak eskainia.

2. EUSKALTZAINDIAREN AZKEN ARAUEI BURUZKO IKASTAROA.

Martxoak 18, 19, 20, 25 eta 26. 18.00etatik aurrera, 3 orduz egunero.

3. ITZULPENGINTZA

IKASTAROA. Apirilak 1, 2, 3, 8, 9 eta 10. 18.00etatik aurrera, 3 orduz egunero.

Ikastaro praktikoa izango da eta itzulpe gintzan interesa duen orori eskaintzen zaio.

4. GRAFOLOGIA IKASTAROA.

Martxoak 14 eta 15. Iraupena: 5 ordu. Ikastaroa Julio Araluze Grafologian adituak emango du.



DROGOMENPEKOTASUNEAN GAZTE BITARTEKARIENTZAKO IKASTAROA

Martxoak 15, 22, 29 eta Apirilak 5 eta 12. Guztira 40 ordu. Bilbon, Conde Mirasol kalea, 13. loia1.eskuma. Antolatzailea: Askagintza eta Izadia, Ikerketa Kabinetea.

TAILERRAK ETA JARDUNALDIAK

"ESKUBIDE SOZIALAK EUSKAL HERRIAN" TOPAKETAK

ELKARTZEN, gizarte eskubideen aldeko mugimenduak antolatua, apirilaren 5 eta 6an. NON: Los Paules Bigarren Hezkuntzako Institutuan, Domingo de Sautu kalea 65, Murgia (Araba). TOPAKETEN HELBURUAK: Esperientzien trukaketa, gutxieneko adostasunak finkatzea eta xede komunengatik inguruan indarrak biltzea.

1. TAILERRA: "Euskal Herriaren eraikitzea parte-hartzetik: lana eta aberastasunaren banaketa". Atalak:

1- Mahai-ingurua, sindikatuarekin, bakoitzak gai honekiko duen ikuspuntua eta proposamenak azal diezazkigun.

2- Gizarte mugimenduen ekarpena borroka honetan: esperientziak,...

2. TAILERRA: "Etxebizitza duin bat izateko eskubidea".

Atalak:

1- Etxebizitzaren arazoa Euskal Herrian: Historia. Gaur egun.

2- Datuak: Lana. Errentak. Tipologia.

3- Eskubideen ukatzea: Espekulazioa.

Gaztediaren infantilizazioa. Menpekotasun ekonomikoa eta emakumea. Banku eta aurrezki kutxen papera. Etxe hutsak. Gizarte babesa egoeraren adabaki gisa.

4- Balizko konponbideak (merkatuaren logikatik atera): Zolu publikoa. Okupazioa. Etxebizitza hutsa. Alokairuzko etxebizitza publikoa. Beste esperientzia batzuk.

3. TAILERRA: "Gizarte laguntza eta zerbitzuak ¿Limosna publikoak edo gizarte eskubideak?".

Atalak:

1- Sarrera historikoa: Nazioarteko testuingurua. Estatu espainiarra / Estatu frantsesa.

2- Gaur egungo egoera: Gizartearen dualizazioa. Pobrezia, datu batzuk. Tipologia. Ukituriko taldeak. Etxebizitza.

3- Eskubideak.

4- Proposamenak: Ekonomiaren demokratizazioa.

Bizi-kalitatea. Gizarte zerbitzuen garapen berri bat. Garraioak. Gizarte soldata. AES. Jantokiak. Haurtzaindegiak. Aisialdi eta denbora libre.

4. TAILER NAGUSIA: "Kontzientziak astindu, espazio berriak okupatu, alternatibak eraiki". Atalak:

1- Balantzea: Gizarte eskubideen karta.

Parlamentu tramitea. Ondorioak.

2- Gaur egungo egoera: Krisi ekonomikoa.

Mugimenduaren zatitzea. Ekimena erakundeen esku.

3- Etorkizunerako estrategia: Errebindikazioen eguneratzea. Diskurtsoaren zorroztea.

Gutxieneko batzuen inguruko estrategia komuna.

DESARROLLISMOAREN AURKAKO JARDUNALDIAK ANDOAINEN

1. Hitzaldia: "Abiadura Handiko Trenez Jaizkibelgo Superportura". Martxoaren 13an, 20:00etan Mikel Alvarezen eskutik, Euskalduna Mendigoizale Taldearen egoitzan.

2. "Requiem por un sueño" pelikula, martxoaren 19an, 22:00etan, Itzala tabernan.

3. "Baratze kritikoa" Nekazaritzari buruzko erakusketa, Martxoaren 20tik 31 arte, Allurralde kiroldegian

4. Hitzaldia: "Situación de las cárceles en la última década. ¿ y en el futuro?". César Manzanosen (Salhaketa taldeko kidea), eskutik martxoaren 26an, arratsaldeko zortzietan Itzala tabernan.

KONTAKTUAK

BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA:

94-4320445, urtxin@euskalnet.net

KOSKA IRRATIA: Getxo 66 posta-kutxa,

koskairratia@euskalerrria.org

ELKARTZEN: elkartzen@euskalerrria.org; Tel: 660 593 493.

ASKAGINTZA: 94 4166992 /94 4163346 eta

bizkaia@askagintza.euskalnet.net

GASTEIZKOAK TALDEA: gorostineu@euskalnet.net ;

Tel: 945-257787

ZAPATENEO kultur elkartea: zapateneo@euskalerrria.org ;

Tel: 945-14 9379

MUGARIK GABE: mugarik.gip@euskaltel.net;

tel.: 943-445977 / 656 708598

IPES-GITE: 94-479-04-30 edo ipes.billbao@euskalnet.net

EMAZTEEK-DIOTE: emazteek-diote@wanadoo.fr





AEKrekin herri bat geroa lantzen

Euskal Herriak bere kultura eta hizkuntza berreskuratzeko lana ez da gaurkoa. Aitzitik, gaur egun daukaguna, eta etorkizunean Euskal Herria euskalduna erdi-esteko esperantzak, gure aurrekoek egin zuten lan eskergan dute oinarri. 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hasieran, euskal kulturak berpizkunde izugarria izan zuen arlo guztietan: kantagintzan, literaturan, arte plastikoan, ikastolak eta gau-eskolak herri askotara hedatu ziren, euskara batua sortu zen... Kantagintzan, esaterako, argi dago gaur egun produkzio txukuna (kantitatez eta kalitatez) eta merkatu "normalizatu" baldin badaukagu, garai hartan egin zen esfortzuari esker daukagula. Izpiritu horri heldu nahi dio, hain zuzen ere, Korrika 13k eta argi utzi euskararen geroa gaur egun egiten dugun lanaren baitan dagoela. Horregatik, garai hartan egin zenaren moduko beste jauzi bat egin gura badugu, lana, ilusioa eta guztion esku-hartzea ezinbesteko lanabesak dira.

Korrikak izpiritu hori berreskuratzeko, berpizkunde horren protagonista izan zirenei omenaldia eskaini nahi die. Asko izan ziren garai hartan itzelezko lana egin eta Korrikaren gorazarrea merezi dutenak: horien artean, ez bakarrik baina, «Ez dok amairu» mugimendua. Korrika 13 honek «Ez dok amairu» sortu zuten haien kemena eta gogoia gaurkotu egin nahi ditu. Jakina denez, izena Jorge Oteizak jarri zion, Azkuek Bizkaian jasotako herri ipuin batetik hartua, euskal kulturaren alorrean hamahiruaren adur gaiztoa hautsi eta pizkondeak aurrera joko zuela adierazteko. Gaur egun Korrikak gauza bera adierazi nahi dio gizarteari: ez dago hamahirurik, ez dago malefiziorik,

patua saihesterik badago, oso egoera zailean eta diktadurapean euskal kantagintzari eta euskal kulturari oro har berebiziko bultzada ematea lortu zuten moduan, geuk ere, eraso, zatiketa juridiko eta neurri murriztaile guztien gainetik, aurrera egiteko moduan gaude lanari ilusioz ekiten badiogu. Berpizkunde berri baten atarian jarri behar dugu euskal gizartea, gai gara-eta.

Geroa guk geuk erabaki ezean besteren batek erabakiko du, hots, euskararen etorkizuna euskaldunok erabaki ezean huskeria litzateke. Etorkizuna orain astintzea, horixe da gakoa. Euskarak lege babes iraunkorra behar du lurralde osoan. Euskara normalizatu beharrezko dugu. Eta horretarako bi gauza dira ezinbesteko: alde batetik, euskararen gainetarako hizkuntzekiko parekotasuna eta balioa azpimarratzea, euskaldunon eskubideak bermatzea eta euskararen lurralde osoan eta arlo guztietan behar duen tokia aldarrikatzea, hots, ofizialtasuna. Bestetik, transmisioa ziurtatuko duen hizkuntz politika tinkoa bultzatzea, helduen euskalduntzea atzera pausoka ari den momentuotan helduak euskaldundu behar diren garrantzia azpimarratzea, gaurdanik urratsak emanez. Euskarak bizi duen egoeran ezin dugu belaunaldi bat galdutzat eman, tarteko belaunaldiaren euskalduntzeak baino ez baitu bizi iraupenerako beharrezkoa den transmisioa ziurtatuko. Horrexegatik, helduen euskalduntzearen garrantzia eta beharra, gure esku dagoena eta gaurdanik posible dena. Eta lan horretan berebiziko eragilea izan den eta den AEKren beharra ere aldarrikatu nahi du Korrika 13k. Ildo horretan, azken aldi hainbat erasok kinka larrian jarri duten AEK denon lanari esker gaudituko duen itolarritik atera beharra ere azpimarratu nahi dugu. Ez dugu dudarik gure esku dagoena. Horrexegatik ORAIN DA GARAIA, eta horixe da Korrikak bultzatu nahi duena.

Gaurkoak eragingo du geroan.

Ge,
Gi, go, gu
Ga, gara
Ge, gero
Gu, gure
Gu gara
gure gero
Gar,
Ger,
Gir, gor, gur
Gar gorri
Gor
gari
Gure herri
Geroaren
egarri
Geu gara
harri
Geu urre
gorri
Geu gure
orri
Gure urri,
gure irr i
Ez dok
hamairu!
Ez da
malefiziorik!
Herri bat
Herri bat
osorik
Gero bat
Gero bat
gaurdanik
Harriz harri
gora
Gure gero
gura
Irriz gara
Gero,
gu herri
gara
Badok
hamairu!
Bada
egitekorik!
Herri bat
Herri bat
osorik
Gero bat
Gero bat
gaurdanik



EUSKAL HERRIKO EMAKUMEAK PORTO ALEGREN

- Zer topatu duzue Porto Alegren?**
- Zer ekarri duzue Porto Alegretik?**

ELA SINDIKATUA : Laura Gonzalez de Txabarri

-Aurreko urteetan bezala, Porto Alegren bizitako esperientzia ikusgarria izan da aurten ere. Han munduko bazter guztietatik joandako emakumeekin topo egiteko aukera izan dugu, baina egia da gehien bat Europa eta Ameriketatik joandakoak garela gehienak. Duela urte batzuk Emakumeen Mundu Martxa zela medio argi geratu zen mundu guztian zehar emakumezkoek arazo berak zituztela: bortxakeria eta pobrezia. Behar bada, hura izan zen gerora Porto Alegren aurkitu dugunaren lehen urratsa, emakumearen ikuspuntutik begiratuta, noski. Organizazio eta mugimendu desberdinak, helburu bakar bat lortzeko elkarlanean: beste mundu bat eraikitzea, justuagoa eta solidarioagoa. Porto Alegren sortutako prozesuan, Emakumeen Mundu Martxa presente dago zutabe garrantzitsu bat bezala, mundu guztiko emakumeen aldarrikapenak defendatuz. Martxan jarri den prozesua ezinezkoa izango da emakumeek parte hartzen ez badute. Mundu alternatibo bat eraikitzeko, injustizia guztiei bukaera jarri behar zaie, eta emakumeek munduan zehar jasaten duten bortxakeria eta pobreziaekin bukatzea ezinbestekoa da. Elkarren legitimazioa, beharra. Aniztasuna aberasgarri.

-Aurten hirugarren Foroa izan da Porto Alegren. Hasieran elkar ezagutzen joatea eta diagnostikoak egitea izan baziren elementu garrantzitsuenetarikoak, oraingo honetan elkarren legitimazioa ezagutzea eta elkarren beharra onartzea izan dira, prozesuak aurrera jarrai dezan ezarri behar diren estrategiak lantzeko. Agenda komun bat ekarri dugu Porto Alegretik, otsailaren 15ean Gerraren aurka atera ginen, Martxoaren 8an emakumeen eskubideak eta berdintasuna aldarrikatzeko aterako gara, eta abar, eta abar luze bat. Zer egina maila guztietan dagoenez, guk

geure mailan landu behar dugu mundu hobe baten aldeko borroka. Porto Alegretik Euskal Herrira ekarri behar ditugu aldarrikapenak eta estrategiak, bakoitzak bere mailan lan egin dezan. Elkarlanean beharra, aniztasunaren aberastasuna, eta aliantza berrien ezinbestekotasunaz konbentzitu gara Porto Alegren.



EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA: Kakun Guarrotxena

Urtarrilaren 21ean Porto Alegreera abiatu ginen mundu mailako foroan parte hartzeko. Gure helburuak bi ziren: alde batetik kontaktuak egitea eta beste errealitateak ezagutzea, eta bestetik euskal emakumeon egoera azaltzea eta konpartitzea.

Hara heldu eta lanean hasi ginen, kontaktu asko egin genituen gehienbat Hegoamerikako emakume taldeekin. Bestalde Martxa Mundialaren bileretan egon ginen, bertan garatzen ari diren proposamenak Euskal Herrira ekartzeko.

Bestalde tailer ezberdinetan parte hartu genuen, horien arteko bi garrantzitsuenak hauek: lehenengoa "Globalizazioa genero ikuspegitik" LABekin batera egindako azterketatxoa hainbat emakume eta gizonekin konpartitutakoa. Bigarrena Argentina, Brasil, Chile, Cuba, Venezuela eta Guatemalako emakumeekin batera izan zen eta emakumearen papera herri mugimenduetan aztertu genuen.

Egindako guztia kontuan izanik hainbat ondorio atera daiteke: Alde batetik emakumearen gaiak presentzia handia duela eta interesa ere oso altua dela. Hainbat esperientzia ezagutu ditugu, beraz Euskal Herrian guzti hau aprobeitatu daiteke. Bestetik kritika txiki bat egitea ere ikusten dugu, holako makro-foroetan azkenean herri mugimenduari garrantzia eman beharrean intelektualek hartzen baitute protagonismo osoa.